

UPV/EHUⁿ AZPIEGITURA ZIENTIFIKOA ETA FONDO BIBLIOGRAFIKOAK EROSI ETA BERRITZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2024)

Onartutako eta ukatutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Behin legezko epean eta eran jasotako dokumentuak berrikusirik eta kanpoko adituek egindako ebaluazio txostenak aztertuta, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) 2024ko uztailaren 17an hala proposatuta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE)

ERABAKI DU argitaratzeko agintzea errektoreordetzaren webgunean onartu eta ukatutako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Jakinarazten da gutxieneko nota **77** puntutan ezarri dela.

ESKAERAK BEHIN-BEHINEKOZ UKATUTA DITUZTEN ikertzaile nagusiek, **2024ko uztailaren 24tik irailaren 9ra arteko (biak barne)** epea izango dute alegazioak aurkezteko.

Ikertzaile nagusiek beren eskaerari dagokion ebaluazio txosten osoa eska dezakete, igz.ehudeialdiak@ehu.eus helbidera idatziz. Mezuaren gaien "Azpiegitura 2024 deialdia" idatzi behar da.

Alegazioak aurkeztu beharko dira, nahitaez, UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>). "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu beharko da: "Azpiegitura 2024-Alegazioak".

Aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu Ikerketa Batzordeak, egingo duen hurrengo bileran.

Leioan, 2024ko uztailaren 22an

UPV/EHUren IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA